

# **2025/2026eko** **eskolaz kanpoko** **proiektu pedagogikoa**

**Lehen**  
**mailakoentzat**

**Josta Leku aisialdi zentroa**



## AURKIBIDEA

|                                                          |           |
|----------------------------------------------------------|-----------|
| <b>I. Testuingurua</b>                                   |           |
| A. Antolatzailea                                         |           |
| B. Harrera .....                                         | 4         |
| C. Dauden egoitzak                                       |           |
| D. Publikoa                                              |           |
| E. Talde pedagogikoa                                     |           |
| <b>II. Eremu pedagogikoa .....</b>                       | <b>6</b>  |
| <b>III. Jarduera osagarriak (kanpaldi laburrak).....</b> | <b>8</b>  |
| <b>IV. Antolaketa eta funtzionamendua .....</b>          | <b>8</b>  |
| A. Izen ematea .....                                     | 8         |
| B. Aisialdi zentroko ohiko eguna .....                   | 9         |
| <b>V. Ahalmen urriko haur baten harrera</b>              |           |
| <b>VI. Segurtasuna eta artak .....</b>                   | <b>11</b> |
| A. Erizaindegia .....                                    | 11        |
| B. HPI eta erregimen bereziak .....                      | 11        |
| C. Eguneroko mediku-tratamenduak .....                   | 11        |
| <b>VII. Ebaluazioa .....</b>                             | <b>11</b> |

## Sarrera

Hazparneko herriak segitzen du pizte eta josteta jarduerak sustatzen eskola denboraz kanpo, 0 eta 17 urte arteko haur eta gazteendako hezkuntza ekintza herrikoiaaren alde ari den Haurtzaro eta Gaztaro politikari esker.

Herriko aisialdi zentroa eta gazte gunea zinez osagarri dira hezkuntza mailan. Haurren beharrei erantzuten dieten egiturak dira, eta baliabide guziak plantan ezartzen dituzte haien ongizatea eta garapena laguntzeko. Plazera jostetaren bidez, lotura sozialak eta jendarteko bizia, horra hor balioan ezarri nozio zenbait.

Talde pedagogiko osoak apailatu proiektu pedagogiko hau Herriko Etxearen heziketa proiektutik sortu da, eta Haurtzaro eta Gaztaro politika bermatzen du. Ez da finkoa, noiznahi alda daiteke, talde osoarendako behin betiko euskarria da.

Proiektu honek lau heziketa balore kontuan hartuko ditu, taldeak eraman ekintzak laguntzeko, haurra erdian ezarriz:



## I. Testuingurua

### A. Antolatzailea



Hazparneko Herriko Etxea  
Auzapeza: Isabelle PARGADE anderea

Heziketa, gaztaroa eta herritar bizitzaren  
ardura duen auzapezordea: Anabelle VERGEZ  
anderea

Helbidea: Jean Lissar karrika, 5 - BP  
50025  
64240 Hazparne

Harremanak: 05.59.29.60.22

### B. Harrera



### C. Dauden egoitzak

Aisialdi zentroak egoitza partekatzen du Jean Verdun eskolako ama eskolarekin eta lehen mailarekin.  
Lehen bilkuratik beretik, gela bat lotua zaio haur talde bakoitzari:

Lehen mailako haurrak bi taldetan zatituak dira eta CP-CM2ko haurrak errezibitzen ditu.

- Jarduerak euskaraz egin nahi dituzten haur taldea: EUSK'ARTZAK
- Jarduerak frantsesez egin nahi dituzten haur taldea: (izena gazteekin gogoetatzen ari gara)

Neraberen harrera ere egiten da eskolako oporraldietan, Eihartzean (Samactiv': Kolegioko ikasleak + CM2 apiriletik goiti); proiektu pedagogikoa desberdina da.

Herriarenak diren egoitza zenbait ere erabiltzen dira: Mendeala eta Egoki kiroldegia, Xapitalia kirolgunea, Elgar Zentroa (mediateka eta GIG). Egitura horien bidez talde pedagogikoak finkatu helburuei ihardesteko jarduerak plantan ezar daitezke.

#### D. Publikoa


Talde pedagogikoak haurren beharrak eta interesak kontuan hartuko ditu haien garapenean laguntzeko. Haurren garapena bakoitzaren arabera baita, taldea bere behaketa-lanean bermatuko da jarduerako egokitzeko.

| Adin tartea    | Beharrak eta interesak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           | Egin daitezkeen jarduerak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
|----------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 6-8 urtekoak   | <p>Behar fisiologikoak (jatea, lo egitea eta mugitzea)</p> <p>Afekzio, segurtasun eta komunikazio beharra</p> <p>Norbera gorputzaren eta pertsonaren kontzientzia ukaitea</p> <p>Ingurunearen esplorazioa, esperientzia eta eskukatze beharra</p>                                                                                                                | <p>Kantuak, ipuinak eta dantzak</p> <p>Mozorroak eta makillagaiak</p> <p>Sortze jarduerak eta xintxuketa</p> <p>Eraikuntza jarduerak</p> <p>Kirol jarduerak<br/>(baloi-jokoak, lankidetzak-jokoak, lasterkatzea, eskuaire-jokoak, etab.)</p> <p>Sukaldaritza tailerrak</p> <p>Ingurune baten/naturaren ezagutzea</p>                                                                                                                          |
| 8-10 urtekoak  | <p>Behar fisiologikoak (jatea, lo egitea eta mugitzea)</p> <p>Afekzio, segurtasun eta komunikazio beharra</p> <p>Lehiatzeko eta norbaitekin norgehiagoka ari izateko beharraren agerpena</p> <p>Justizia eta zuzentasun beharra</p> <p>Sozializatzea gero eta inportanteagoa da (lagun taldea)</p> <p>Sorkuntza bukatuen bidez adierazteko beharra: objektua</p> | <p>Joko handien hastapena<br/>(pista jokoak, altxor ihizia, olinpiadak, etab.)</p> <p>Kirol jarduerak<br/>(baloi-jokoak, lankidetzak-jokoak, lasterkatzea, eskuaire-jokoak, etab.)</p> <p>Sortze jarduerak eta xintxuketa</p> <p>Adierazpen jarduerak</p> <p>Irakurketak, ipuinak, istorioak</p> <p>Kantuak, dantzak eta dantza-jokoak</p> <p>Ingurune baten/naturaren ezagutzea</p> <p>Jarduera auto-kudeatuak (heldu baten zaintzapean)</p> |
| 10-12 urtekoak | <p>Behar fisiologikoak (jatea, lo egitea eta mugitzea)</p> <p>Afekzio, segurtasun eta komunikazio beharra</p> <p>Nork bere burua "handi" gisa kokatzeko beharra, ez da gehiago "ttipiekin" jostatzen eta "ttipien jokoei" uko egiten die</p> <p>Justizia eta zuzentasun beharra</p> <p>Taldearen osatzea</p>                                                     | <p>Joko handiak<br/>(pista jokoak, altxor ihizia, olinpiadak, etab.)</p> <p>Kirol jarduerak eta kanpoko kirolak<br/>(lehiaketa jokoak, rallyak, desafioak, etab.)</p> <p>Sorkuntza jarduera landuak</p> <p>Adierazpen jarduerak</p> <p>Irakurketa (komikiak, eleberrak, mangak, etab.)</p> <p>Kantuak eta dantzak</p> <p>Egun guziko ibilaldiak eta kanpatzea</p> <p>Jarduera auto-kudeatuak (heldu baten zaintzapean)</p>                    |

## E. Talde pedagogikoa

Talde pedagogikoan bada:

- Zuzendaritza taldea
- Animazio taldea
- Kantina eta higiene taldea



Laneko taldea proiektu pedagogikoaz baliatzen da haur bakoitza eskolaz kanpoko denboretan loratu dadin, baita ere gure ekintzen bilana apailatzeko, gidatzeko eta gauzatzeko.

**Talde pedagogikoko kide bakoitzak bere gaitasunak eta bizitzeko trebetasunak ekarriko ditu denboraldi guzian, proiektua garatzeko**

## II. Eremu pedagogikoa

Hazparneko herriak harrera proposatzen du eskolako oporraldi guzietan Eguberriz salbu. Denborali horietan taldea urte hastapenean finkatu helburu nagusi eta operazioaletan bermatzen da; hauek lau hezkuntza-xedeei ihardesten die.


Lurraldeko heziketa proiektuarekin bat etorritz, proiektu pedagogikoaren helburu guziek Hazparneko Josta Leku zentroan euskararen garapenaren sustatzea dute xede. Horregatik dute zenbait langilek euskarazko formakuntza segitu eta euskara menderatzen duten pertsonak enplegatzea lehenesten dugu.

Langile horiek harremanak euskaraz bermatzen dituzte familiekin eta hurrekin harrera mementoetan. Gainera, lan administratiboak, gure ordutegien eta sare sozialetako argitalpenen itzulpena barne, haurrak euskarari sentsibilizatzeko dugun nahia azpimarratzen du.

Hezkuntza materiala ere haurren eta animatzaileen esku ezarria da.



2025/2026eko eskolaz kanpoko proiektu pedagogikoa lehen mailakoentzat  
Helburu nagusiak eta operazionalak



### III. Jarduera osagarriak (kanpaldi laburrak)

Udako oporretan, kanpaldi laburrak proposatzen ditugu 6 urteko eta 6 urtez goitiko haurrentzat. Kanpaldi labur horiek gorago aipatu helburu orokor zenbaiti ihardesten diete, eta helburu operazionalak animazio taldean finkatuak dira kanpaldia antolatzeke mementoan.

**Norentzat?** Aisialdi zentroan izena eman eta kanpaldia aitzin gutienez bi egunez zentroan egon diren haurrentzat.

**Iraupena?** 1 eta 4 gauren artean

**Non?** Aisialdi zentrotik 2 orenera gehienik.

**Loa non?** Oihal-etxoletan lo eginen da animazio taldeak finkatu hezkuntza-interesa errespetatzeko, eta hurrek aire-sanja bizi izan dezaten.

**Jarduerak?** Kanpaldian izanen diren animatzaileek dituzte jarduerak finkatuko gaiaren eta dituzten baliabideen arabera.

**Erritmoa?** Haurren eguna zentroko egunaren erritmo berean iraganen da, memento gehigarriekin: jaikitzea, garbitzea, askaltzea, afaltzea, gualdia eta oheratzea. Denboraren kudeaketa haurren adinaren arabera egokituko da.

### IV. Antolaketa eta funtzionamendua

#### A. Izen ematea

Aisialdi zentroa eskolako oporraldietan irekia da. 6 eta 11 urte arteko haurrak errezibitzen ditu. (Hesten da Eguberriko oporretan).

Aisialdi zentroa irekia da 7:30etik 18:00etara eskolako oporraldietan.

Izen ematea familien atariaren bidez egiten da. Aisialdi zentroaren irekitze egunak eta izen emate epeen egunak atzemanen dituzu familien atarian.

Hurrek oporraldietako izena eman dezakete **EGUNEKO** bakarrik.

Argibide gehiagoren ukaiteko, ikus barne araudia eta prezioak familien atarian, "Dokumentuak-Argibideak" sailean: [Espace Famille iNoe ou sur le site de la ville : Hasparren.fr](#)

B. Aisialdi zentroko ohiko eguna



**Harrera:** Memento horretan haurrak tenore desberdinetan etor daitezke. Libroki josta daitezke edo animatzaile batekin jostatzeko parada ere badute.

**Egunaren aurkezpena eta presentzia zerrendaren irakurtzea:** Harrera bukatu eta, haurrek erabili guneak ordenatuko dituzte, eta bilduko dira presentzia zerrenda irakurtzeko eta eguneko egitarauaren aurkezpenerako.

**Animazioak:** Goizko animazioak hasiko dira.

**Bazkaria:** Bazkari denbora garrantzitsua da haurren eta helduen arteko harremanak bultzatzeko (animatzaileak eta jantegiko langileak). Harreman horren errazteko, animatzaileek haurrekin batean jaten dute.

Denbora hori haurrek dute antolatzen eta eramaten, "haurraren garapena errazteko eta laguntzeko":

1. Mahaia eta mahaikoak plantan ezartzea
2. Jakien banaketa eta zerbitzua
3. Haurrek beren mahaia auto-kudeatuko dute
4. Mahaia hustea eta garbitzea

Haurrak jateko denboraren eragile bihurtzen dira, balore inportanteak bilduko dituzte, hala nola partekatzea, lankidetzeta eta komunikazioa.

**Memento lasaia / loaldia:** Bazkaldu ondoan, pausaldia beharrezkoa da! Memento lasaiaren aldi, beraz, eta horren beharra duten ttipienek loaldiaren mementoa ukanen dute. Memento hori haurraren beharrari egokituko da. Balia daitezke etzanik egoteko, irakurtzeko, kalakan aritzeko, elkartzeko edo hasi jarduerak bururatzeko.

**Animazioak:** Arratsaldeko animazioak hasiko dira.

**Arratsaldeko askaria eta egunaren bilana:** Arratsaldeko askariaren mementoa egunaren bilana egiteko eta ondoko egunetako zer gogo duten jakiteko mementoa da.

**Arratsaldeko harrera:** Memento horretan eguna bururatu daiteke joko libroekin edo animatzaileek zaindu jokoekin.

## V. Ahalmen urriko haur baten harrera

Hazparneko Herriko Etxeak antolaketa eta giza gaitasunak egituratu eta egokitu nahi ditu, familien galdeekin eta beharrezko baliabideekin bat eginez. Hona desmartxa horren hiru xede nagusiak:

- Ahalmen urriko haurren irudia hobetzea bidezko leku bat emanez jendartean, Josta Leku sozializazio lekuaren bidez
- Harrera inklusibo proiektua emeki-emeki garatzea; aniztasunak leku garrantzitsua ukanen du errezibitu haur guzientzat eta haien familientzat.
- Familiak eta partaideak desmartxa honi lotzea herritarren beharrei ahal bezain ontsa ihardesteko gisan.

Hazparneko Herriko Etxea engaiatzen da ahalmen urriko haurrak baldintza hoberenetan errezibitzea. Horretarako:

- Egiturako zuzendaria edota proiektu-koordinatzailea familiekin bilduko da haurraren ibilbidea ezagutzeko
- Harrera protokolo bat plantan ezarriko da eta familiak artoski bete beharko du haurrari buruzko argibide guziak ukaiteko eta bere integrazioa errazteko
- Langile bereziek ahalmen urriko haurrak laguntzen ahalko dituzte elbarritasunaren arabera (Ikasle elbarrituen laguntzaile baten ukaiteko hitzarmena, Handi-Ressources 64 erakundearen esku hartzea...)
- Egun erdiko egokitze denborak proposatzen ahalko dira integrazioa ahal bezain ongi erreusitzeko
- Talde pedagogikoak noiztenkako formakuntzak segitzen ahalko ditu

Herriko Etxeak elkarlana finkatu SESSAD TSA AVA egiturearekin (medikuntza- eta gizarte-egitura Autismoaren Espektroko Nahasmena duten haurren laguntzan berezitua), Elgarrekin Handi-Ressources 64 erakundearekin (ahalmen urriko haurrak aisialdi zentroetan hartzeko sostengu erakundea), eta Hautzaro eta Gaztaro zerbitzuarekin haur horien eta haien aitzinatzearen eta integrazioaren segimendua hobea izan dadin.



## VI. Segurtasuna eta artak

### A. Erizaindegia

Haurren segurtasun fisikoa eta morala animazio taldearen eginkizun nagusia da. Aginduak usu oroitarazten dira. Eraikin bakoitzean (lehen mailakoan eta ama eskolakoan) farmazia kutxa bat bada.

Haurrei ematen zaizkien arta guziak erizaindegi erregistroan idazten dira. Animatzaile guziek ematen dituzte artak. Eginkizun hori ez da pertsona bakar batena edo zuzendariarena. Talde pedagogikoa tabletetan bermatu daiteke haurren lotura fitxak eta izen-helbideak ikusteko.

Zentrotik ateratzen direlarik, animazio taldeak farmazia zorro bat badu eta beti behar du egiaztatu beharrezko materiala bertan dagoela (zerrenda zorroaren barnean da).

Istripu larri oro, edo animatzaileak larritzat jotzen duen istripu oro, zuzendaritzari jakinarazi behar zaio.

### B. HPI eta erregimen bereziak

Zuzendaritza taldeak behar du segurtatu zentroan ibiltzen diren haurren Harrera Proiektu Indibidualizatua baduela, eta kasu berezi guziak ezagutu behar ditu talde pedagogikoari emateko gisan.

Familiek, medikuek eta elkargoak dute Harrera Proiektu Indibidualizatua plantan ezartzen; horren bidez elikadura edo erremedio alergia bat tratatu daiteke, harrera baldintzak, egitekoak eta esku hartze moldeak finkatu. Proiektuari esker haur baten eritasuna abiatuz gero, ihardesteko eta baldintza hoberenetan hartzeko parada bada.

### C. Eguneroko mediku-tratamenduak

Haur batek tratamendu bat segitzen badu, animatzaile bat izendatuko da erreferente gisa tratamendua emateko, burasoek eman mediku-ordenantzaren arabera. Ordenantza horrek dosia eta segitu beharreko protokoloa zehaztu behar ditu. Animatzaile-erreferentea osagarri segimenduaren arduradun ere da osagarri segimendu kaier baten bidez.

## VII. Ebaluazioa

Proiektu pedagogikoaren ebaluazioa helburu nagusi eta operazionalen arabera egingen da, taldean. Proiektu honek urte baterako balio du, beraz, helburuen arteko bilana egingen dugu gure ekintzak egokitze eta proiektua aitzinarazteko.